



Kutxa didaktikoa Jantziak eta ehun-gaiak

Jantziak eta ehun-gaiak kutxa, animalia-jatorriko eta landare-jatorriko ehun-zuntzak eraldatzeko tresnek osatzen dute batetik, eta bestetik, hainbat garaitan egunero erabiltzen ziren jantziek: XIX. mendearen hasieratik XX. mendearen erdialdera arte.

Kardaria

Artilea eta lihoa kardatzeko erabiltzen zen burdinazko hortzak dituen zurezko tresna. Kardatzea zuntzak orrazteko modu bat da, horiek iruntzeko eta mataza bat egin ahal izateko. Honako hauek ziren ehunak egiteko zuntz erabilienak: lihoa barruko arroparako eta artilea berotzeko arroparako.





Oin-puntakoak

Oinetakoen puntari forma emateko moldea. Espartinen punta josteko erabiltzen ohi zen.

Anezka

Ehuntzeko tresna. Haria ezkerretik eskuinera pasatzen da, eta alderantziz, bilbean zehar irazkia eratuz, ehuna egiteko.



Artzain-txaratila

Erdian kako naturalean amaitutako makilatxo batek zeharkatzen duen ezel-zurezko diablo modukoa, zeinak artileari eusteko balio duen; diabloak txirrika gisa haria bihurritzen du, artilea iruten den bitartean.

Tresna hau artzainek erabili ohi dute, emakumeek berriz, txaratila tradizionala. Nafarroan ohiko tresna da.

Ikatzezko lisaburdina

Oinarri laua duen burdinurtuko ontzi hutsa. Atzeko aldetik doituz ixten da, zurezko heldulekua duen errematatutako burdinazko plaka batekin. Goiko aldetik heltzen da, non zurezko heldulekua duen eskulekua dagoen, tximiniari lotuta doana. Ikatz gorgarrizko txingarrak barruan sartzen dira, oinarria berotzen dutelarik. Behin berotuta, arroparen gainean irristatzen da lisatzeko.



Polokoak

Emakumezkoen kotoi zuriko barruko arropa. Lokarriaren bidez gerrian lotzen da, belaun azpiraino hanka estaliz. Hankartean irekidura handia du, zutik pixa egin ahal izateko.

Pixoihala

Gaza gainjarriak gordetzen zituen oihalezko janzkia, non umearen gernua eta eginkariak biltzen ziren. Erabili ondoren garbitzen ziren, eta gero, zuritzeko lixibaz bustitzen ziren.





Kortsea

Kotoizko barruko arropa, emakumearen bularraldea eusteko eta tente mantentzen laguntzen diona. Aurretik lotu eta atzetik lokarri batekin doitzen da. Gerria estutzeko hagaxkak izan ditzake.

XIX. mendearen bigarren erdialdean, goiko klasearen emakumeentzako ezinbesteko jantzia izan zen. Lehen Mundu Gerran zehar, bere erabilera erabat galdu zelarik.

Ezkontza izara

Arroa egiten duen emakumearen inzialez brodaturiko izara. Barruko arropa eta oheko arropa emakumearen ezkontzaren «ezkonsariaren» parte ziren.



Buruko zapia

Mezetara joateko edo elizkizunetan parte hartzeko, emakumeen ilea eta aurpegi zati bat estaltzeko erabilitako zapia.